

Fabrikazio Adimenduna Especializazio Kurtsoa



Fabrikazio Adimenduna Espezializazio Kurtsoa

(Estatu mailan homologatutako espezializazio kurtsoa)

MAILA: Goi-Mailako Lanbide Heziketa.

FAMILIA: Instalazioa eta Mantenua.

IKASTURTE KOPURUA: Ohiko ordutegia, goizez: Ikasturte 1 LP-ak barne.

METODOLOGIA: Erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboa.

ORDUAK GUZTIRA:

990 ORDU

(Ikastetxean eta enpresan)

SARTZEKO BALDINTZAK

Espezializazio-kurso honetarako sarbidea ematen duten tituluak ondorengoak dira:

- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioa Programatzeko Goi-Mailako Teknikari titulua.
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-Mailako Teknikari titulua.
- Sistema Elektrotekniko eta Automatizatueto Goi-Mailako Teknikari titulua.
- Mekatronika Industrialeko Goi-Mailako Teknikari titulua.
- Mantentze-Lan Elektronikoetako Goi-Mailako Teknikari titulua.
- Automatizazioko eta Robotika Industrialeko Goi-Mailako Teknikari titulua.

FORMAZIO-PLANA

LANBIDE MODULUA	ORDU-ESLEIPENA
5011 Produkzio-prozesu adimendunak.	247
5012 Metrologia eta instrumentazio adimenduna.	114
5013 Sarera konektatutako inguruneak eta gauzen Internet.	114
5014 Makinen birtualizazioa eta produkzio-prozesuak.	95
5015 Lantokietako prestakuntza.	55
E305 Prestakuntza praktiko Duala enpresan.	365
ESPEZIALIZAZIOA GUZTIRA	990

LH DUALa modalitatea

Ikasleek ikastetxeko eta enpresako prestakuntzak bateratzen dituzten LH modalitatea.



FORMAZIO OSAGARRIA

Espezializazio-Kurtsu honetan matrikulatutako ikasleak, ondorengo formazio osagarria jasotzeko aukera izango du Miguel Altuna Lanbide Heziketan:

- Orga jasotzaileen erabilera.
- Zubi-garabien erabilera.
- Ingeleseko errefortzu klaseak.
- Laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko jarduerak gauzatzeko beharrezko ezagutzak.
- Errefortzu klaseak.

FORMAZIOAREN HELBURUAK

Ikasleek beraien ibilbide akademikoagatik duten esperientziaz haratago, espezializazio hau ikastean, digitalizazioari eta 4.0 industriarekin lotutako kontzeptuei buruzko ikuspegia zabalduko du, non ezagutza hauek hurbileko enpresa industrialetako ekoizpen-prozesuetan ezarri edo integratzeko aukera zabalduko zaien, eta erreferentziatzeko bihurtuko diren enpresen eraldaketa digitalerako bidean.

Ikasketak amaitzean, pertsona gai izango da:

Beharrak antzemateko, 4.0 teknologia bideratzaileak txertatzeko, baliabide eta erreminta digitalen ezarpena sustatzeko zein automatizazioa begirako ideia eta konponbideak implementatzeko, berariazko produkzio prozesu industrialetan eta baita eguneroko enpresen operatiban.

IKASKETAK AMAITZEAN, ZER LANBIDE-PROFIL ESKURATUKO NITUZKE?

Ikaslea enpresetako eraldaketa digitaleko prozesuen partehartzaile eta/edo eragile izateko aukera izango du, eta honako rol hauek bete ahal izango ditu:

- Eraldaketa digitalerako proiektuen Portfolio bultzatzaile eta kudeatzailea.
- Produkzioa eta kalitatea kudeatzerakoan KPI industrialak aztertzeke gai den erabiltzaile aurreratua, tresna digitalekin eta konektatuen bitartez (ERP/MES, etab) .
- Enpresa-instalazio, makina eta ekipoak birtualizatzeko eta simulatzeko tresnen erabiltzailea.
- Fabrikazio gehigarriko teknologien eta tresna aurreratuen erabiltzailea, diseinu topologikoan zein lattizean, alderantzizko ingeniartzako CAD diseinuan eta metrologia industrial digitaleko maneiatur.
- Datuen komunikazio erramintak eta protokoloak ezagutzeaz gain gauzen internetaren (IoT) erabiltzailea, orotariko elementu, tresna zein makina sensorizatzeko, automatizatzeko eta konektatzeko helburuarekin.

